

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

GEKB erakundeak eskeintzen duen zerbitzua kirola egiten duten pertsonentzako zuzenduta dago. Izan ere GEKB erakundea kirolean oinarritutako erakundea da eta kirol arloan lan egiten du.

Kirolarien artean, gazteetara bereziki zuzenduta daude gure zerbitzuak, gure ustez garrantzitsua delako berdintasunaren ideia lantzea lehenengo momentutik. Gure iritziz, aukera ezin hobea da hezkuntzan ideia hori zabaltzea. Nahiz eta adin guztietara zuzenduta dagoen, gure zerbitzuan haurrek eta gazteek garrantzi handia daukate, hori dela eta, gure bezero talde garrantzitsuena 3-16 urte biratekoa izango da.

Umeei txikiak direnetik modu natural batekin ideia eta pentsamendu hau lantzen baldin badute, askoz errazagoa izango da gure helburua lortzea. Baita ere, gazteekin errazagoa da lan egitea, jokuekin eta modu dibertigarriekin irakatsi ahal dugulako. Gainera, gazteei gai hauek interesatzen zaie.

Gaur egun gazteriak konpromezu handia hartu du arazo sozialekin, beraz, gure erakundea aurrera eramaten dituen ekintza eta zerbitzuekin askotan identifikatutak sentitzen dira. Hortaz, gure ustez, garrantzitsua da konpromezu hori sustatzea eta gazteek duten jakin mina bermatzea. Hori dela eta, gure erakundearen ekintza nagusiek gazteen parte hartzea bermatu nahi dute (hainbat ekintzetan beste talde sozialena ere). Gainera, taktika honekin, etorkizuneko helduak berdintasunean hezitzen ditugu.

Eremu geografikoari dagokionez, penintsulako iparralde guztian lan egiten dugu.

Gaztelan nahiz euskaraz lan egiten dugu, guretzako hizkuntza ez da arazoa. Gainera, gure erakundeak filosofia hau defendatzen du, ahalik eta pertsona gehienei zabaltzeko asmoarekin. Beraz, hizkuntza ez da oztopo guretzat.

Polikiroldegi publikoetan, eskola publikoetan, udako kanpamenduetan (bai erakundea bera prestatutakoak baita beste kanpamenduetan ere)...lan egiten dugu.